

## Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## Robespierrek ez du estatuarik

**ARRAS (FRANTZIA), 1758.** Maiatzaren 6an, Maximilien Robespierre jaio zen familia burges xehe batean. Garai hartan inork gutxik usteko zuen, jatorri hori izanda, gizon hura Frantziako agintari gorena izatera iritsiko zenik. Baina urte batzuk geroago iraultzak bidea erraztuko zion. Gainera, oztopoak gainditzen zailduta zegoen Robespierre.

Amaren aldetik umezurtz geratu zen txikitan eta aitak berehala abandonatu zuen. Beka bati esker egin zituen ikasketak; aberatsen ikastetxeko haur pobrea izan zen. Behin, eskolan, Louis XVI.a eta Marie Antoinette errege-erreginentzat ongi-etorri hitzaldia irakurri zuen, geroago bikotea gillotinara eramango zuen haur hark. Baina ez zen bere bizitzako ironia bakarria izango. Zuzenbide ikasketak burutu, eta lanean nahiz Procopé kafetegiko tertulietan ezagun egingo zuen oratoria garatu zuen.

Behin boterean, artisau etxe xume batean bizitza erabaki zuen, bere kideek ez bezala. Baina izenaren eta abizenaren artean kutsu aristokratikoko “de” bat eranstea erabaki zuen. Eta gainerako iraultzaileen artean prakak, ile luzea eta txano frigiarrak moda zirenean, Robespierrek ez zituen ileorde zuriak, kasakak eta zilarrezko belarridun zapatak baztertu.

Subiranotasuna herriarena zela uste zuen, eta gaur erabat logikotzat jotzen dugun existitzeko eskubidea defendatzen lehena izan zen. Eskla-



**Goian, Maximilien Robespierre, duela 250 urte jaio zen frantziar iraultzailea. Behean, gillotina; Robespierrek milaka gizon-emakume kondenatu zituen bertan hiltzera, eta azkenean bera ere tramankulu hark hil zuen.**

butzaren eta gerraren aurka zegoen eta, gezurra eman dezakeen arren, baita heriotza-zigorraren aurka ere. Horra hor beste kontraesan bat, ondorio larriak izan zituen gainera: iraultzaileen batasuna lortu ezinik, garbiketari ekin zion Robespierrek, eta bere agindupeko izualdian 42.000 pertsona inguru exekutatu zituzten. Askatasuna defendatzen zuen demokrata aitzindaria, bere lagunei burua mozteko gai zen diktadore krudel bihurtu zen.

Goraino iritsi, eta agintearen gorenetik bat-batean amildu zen. Herriaren babesak galdu zuenaz jabetzeaz, tiro batez bere buruaz beste egiten saiatu zen. Baina matrailezurra haustea baino ez zuen lortu. Azkenean, iraultzaren izenean hainbestetan erabili zuen gillotinak hil zuen Robespierre, 1794ko uztailaren 28an. Orduan ere iraultzaren izenean noski.

Askorentzat lehen agintari sozialista izan zen, beste askorentzat lehen diktadore modernoak, eta beste batzuentzat muntstro hutsa. Inork ez du zalantzan jartzen garaikideentzat itxura barregarria zuen gizon mehe hura funtsezkoa izan zela Europa garaikidearen hastapenetan. Eskolan ere, denok ikasi genuen zein izan zen Maximilien Robespierre. Baina egun, bere jaiotzaren 250. urteurrena bete berri denean, Paris osoan ez dago haren estatuarik. Erromatarrek *damnatio memoriae* esaten zioten horri. ■

## ARRASTOAK

**ALLIANOI** Turkiako terma-hiri erromatarra urak estaliko du aurki. Gobernu turkiarrak eremu horretatik gertu presa bat eraikitzea erabaki du eta urtegiak aztarnategia estaliko du erabat. Iturri termal garrantzitsuaz gain, besteak beste medikuntza-tresna bilduma aberatsa topatu dute bertan. Eta adi-

tuek beste hainbat aurkikuntza egiteko itxaropena zuten. Izan ere, orain arte aztarnategiaren %20 baino ez dute aztertu, eta indusketak sakonak are eremu txikiagoan egiteko aukera izan dute soilik. Baina hori guztia ez da nahikoa, nonbait, Turkiako gobernuaren asmoak atzera botatzeko.



Gizon bat Allianoiko aztarnei begira.